

10 VIMEO

- o—72 **10.1 ZER DA VIMEO?**
- o—72 **10.2 KONFIGURAZIOA ETA ESKAERAK**
- o—72 **10.3 AURKEZPEN ALDERDIK:
KONTUAK PERTSONALIZATZEA**
- o—73 **10.4 KONTUEN KUDEAKETA**
- o—73 **10.5 EDUKIAK**
 - 10.5.1 Hizkuntza erabilerak
 - 10.5.2 Hizkuntzaren erabilera ez sexistak
- o—73 **10.6 SAREA**
- o—73 **10.7 INTEGRATZEA**



VIMEO

<https://vimeo.com/upvehu>

vimeo [Unete](#) [Acceder](#) [Crear](#) [Ver](#) [Subir](#)

UPV/EHU
Unido hace 3 años

45 Videos 6 Likes 1 Siguiendo 1 Grupo 1 Canal 1 Álbum

eman ta zabal zazu

Cargados recientemente [+ Ver todos los 45 videos](#)

Feliz 2013 Zoriontsua
hace 1 año

2012/2013 ikasturteari hasiera emateko okit...
hace 2 años

10.1 Zer da Vimeo?

Erabiltzaileei beren bideoak argitaratzeko, ikusteko eta partekatzeko aukera ematen dien plataforma bat da Vimeo. YouTube bezalaxe, hau ere egokia da ikastegi jarduerari buruz informatzen duen ikus-entzunezko materiala edo material didaktikoa zabaltzeko.

10.2 Konfigurazioa eta eskaerak

Gizarte sare honetan orri bat ireki nahi duten ikastegi, sail edo unitateen eskaerek gida honen 2. kapituluari adierazitako ereduari jarraituko diote. UPV/EHUko Komunikazio Bulegoa arduratuko da kontuak irekitzeaz eta orriak behar bezala konfiguratzeko, gizarte sarearen erabilera arauak betez; izan ere, Google +ek eskubidea du kontu hauek ordenatzeko (eta kasu batzuetan ixteko), ezarritako irizpideak bete ezean.

10.3 Aurkezpen alderdiak: kontuak pertsonalizatzea

Vimeo-k aukera ematen du orria pertsonalizatzeko, gure avatarrarekin. Orriaren doako bertsioak aukera ematen du asteen 500 MB arteko igoera bat egiteko, HD bideo bat, gehienez 10 bideo egunean eta kanal bat, talde bat eta hiru album sortzeko. Badaude pro bertsioak ere; horien kostua dagokion ikastegi, sail edo unitateak hartu beharko du bere gain.

10.4 Kontuen kudeaketa

UPV/EHUK kontu korporatibo bat dauka Vimeo-n.
UPV/EHUn Vimeo-ko kontuak UPV/EHUn Komunikazio Bulegoan konfiguratzeko dira.

10.5 Edukiak

Vimeo-ko webak aukera ematen du bideoak erreproduzio zerrendetan edo portfolioetan (karpeta bereziak) sailkatzeko eta kanaleko bideo nabarmendua aukeratzeko.
Bideo bat argitaratzerakoan, beharrezkoa da izenburu bat eta deskribapen labur bat jartzea. Horrez gain, etiketen eremua bideoari erreferentzia egiten dioten gako-hitzekin betetzea komeni da, errazago bilatu ahal izateko.

10.5.1 Hizkuntza erabilerak

Gida honen 3. kapituluaren jasotako UPV/EHUn Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideak errespetatuko dira. Sareek bi hizkuntzen kalitatea zainduko duen administratzaile elebidun bat izango dute.

10.5.2 Hizkuntzaren erabilera ez sexistak

Gida honetako 4. kapituluaren biltzen diren arauak jarraituko dira, *UPV/EHUn euskararen eta irudien erabilera ez-sexistarako gidak* jasotako ildoak, hain zuzen.

10.6 Sarea

Ahal den guztietan, gizarte webeko gure iruzkin eta elkarrizketak beste gizarte sare batzuetara (Facebook edo Google +, adibidez) desbideratzen saiatuko gara.
Alde horretatik, Vimeo-n iruzkinak desaktibatatu egin daitezke, elkarrizketak interesatzen zaigun baliabidera berbideratzeko.

10.7 Integratzea

Zerbitzu hau beste webgune batzuetan integartzeko modurik ohikoena edukiak beste baliabide batzuetan (blogetan edo web orrietan, adibidez) txertatzea da. Hartara, blogeko irakurleek beste web batera joan beharrik gabe erabil dezakete baliabidea, eta, beraz, irakurlea ez da galtzen.